

Plazaren labirintoan barrena

Gordexolako liburutegian elkartzen gara ekainak 12 dituenean aurtengo Umeen Kontseiluaren azken bilera ospatzera. Alkatearen eskaria, gogora dezagun, herriko plazarentzako ekarpenak egitea zen, eta horretarako hainbat ideia landu ditugu aurreko egunetan. Aurkeztu beharreko proposamenak mahai gainean jarri eta zer daukagun komentatu dugu. Proposamen batzuk beste batzuk baino garatuago daude eta proposamen orokorra osatzea da gure gaurko lehen egin beharra.

Egindako proposamenetan, gutxien garatuta genuena labirinto bat jartzearena zen, eta horretara jartzen gara gehienak, binaka: Miriam eta Ane, Amaia eta Ninbe, Unax eta Oihan, Mainer eta Henar. Oierrek eta Aitorrek, ordea, *Arbolako Etxetxoaren* ideia garatu dute, eta Mikel eta beste Aitor euren *Zuhaitz Mekanikoaren* ideia gehiago garatzen aritu dira.



Labirintoa hamaika modutan jolasteko, izkutatzeko, egoteko txokoak osatzeko, paseatzeko, polit egiteko... Gernikako Arbolaren inguru horretan, hiruki horretan kokatu nahi dugu. Baina zertan datza gure labirinto hau? Ze forma, ze diseinu, ze

material izango ditu? Izkutaketan jolasteko balioko du? Barruan egoteko txokoak izango ditu? Zenbat irteera izango ditu? Nolako altuera emango diogu?

Denbora luzez jorratu ditugu ideia eta marrazkiak, eta gero bakoitzak landutakoa partekatu dugu. Hain ezberdinak izanik labirinto guztiak, Udaletxeari proposamen guztiak entregatzea erabaki dugu.

Udaletxeko Pleno Aretoan elkartu gara Angela Eguia Gordexolako Alkatearekin, Plazarako proposamen guztiak aurkeztu eta berarekin batera komentatzera. Angelak proposamenak jaso eta banan bana komentatzen ditugu. Batzuek aproposak ikusten ditu, beste batzuen kasuan aurrekontuak begiratu beharko dira... Edozein kasutan, hortxe

geratzen dira proposamenak Udaletxean artxibatuta Molinar Plazaren obrari ekiten zaion unean kontuan hartuak izateko.

Umeek Alkateari galdetzen diote hurrengo obrak zein izango diren eta eskolako igogailua eta patioa estaltzea izango direla erantzun die, uda honetan bertan egingo baita. Gero argazki batzuk atera ditugu elkarrekin eta aurten GUK utziko duten umeei agurra eta eskerrak eman dizkie Alkateak.



*** 2019ko Gordexolako Umeen Kontseiluak Molinar Plazarako egin dituen proposamenak hauek dira:**

PLAZAKO AZPIEGITURAK:

- Oinezkoentzako kalea egitea liburutegi aurretik igarotzen den plaza zati hori.
- Bidegorria (Plazatik Iratzagorriaraino, ibaiaren bidetik).
- Patinentzako zorua: lurzoru finagoa ipintzea eremuren batean ondo patinatu ahal izateko.

JOLASTEKO GAILUAK:

- Lurretik ateratzen diren ur txorroak.
- Labirintoa, Gernikako arbolaren inguruan, landareez egina.
- Zuhaitz mekanikoa: eskalatzeko, kolunpioa, tirolina eta ohe elastikoak izango ditu.
- Kioskoan dragoi-eskilara.
- Arbolako etxetxoa.

* Hemen ikusi eta jaitsi ditzakezue bilera honetako argazkiak:

<https://flic.kr/s/aHsmEk1QC1>